

## Hamar Eguzki baino argiagoa

**H**emeretzi urtez ari dira Estatu Batuetako satelite militarrek Lurra zelatzen eta atmosferako goiko geruzetan eztanda handiak detektatu dituzte. Izar uxoez atmosferara sartzean desintegratuta sortutakoak izan dira. Baina aurtan bere potentzia eta argitasunagatik aurreko guztiak erraz gainditu dituen bat ikusi dute.

Meteoritoa otsailaren 1ean erori zen Ozeano Barean Malaysiatik milaka kilometro batzuk mendebaldera. Desintegratzean igorritako argitasuna Eguzkiarena baino handiagoa zen eta Kusaie irlako arrantza-leek 300 km-ra ikusi zuten. Bola sutan hegomendebaldetik iparrekialderako norabidean sartu zen atmosferara eta 20 kilometroko altitudetan eztanda ikaragarria egin zuen.

Meteoritoak 11 kilotoiko potentzia zuen, hau da, Hiroshimako bomba atomikoak adinakoak. Haitzez osatutako meteoritoa zela kontsideratuz, masa 400 tonakoa eta diametroa 7 metrokoa izango zuela eta 15 km/s-ko abiaduraz erori zela kalkulatu da. Baina balio horiek % 30eko argi-errendimenduan oinarrituta egin dira, eta NASAko adituek diotenez, kasu

honetan errendimendua % 3koa besterik ez zen. Talkan askatutako energia zinetikoa, beraz, 110 kilotoikoa izango zen, eta meteoritoaren masa 3.000 tonakoa (15 metroko diametroa).

## Fomalhaut izarreko hautsa

**F**omalhaut izarra, Hegoaldeko Arraina deituriko kostelazioan dago, guregandik 23 argi-urtera. Granadako Pico Veleta mendian IRAM erakundeak duen irrati-teleskopioaren antena izar horretara bideratuta, astrofisikari batzuek hauts-disko bat detektatu diote inguruan. Hauts-disko horretatik laster planeta sor daitekeela uste dute gainera. Fomalhaut 200 milioi urteko izar gaztea da, hau da, gure Eguzkiaren oso antzekoa. Alan Stern, Michel Festou eta David Weintraub astronomoek diotenez, izarra inguratzen duen hauts-diskoak 200 unitate astronomikoko diametroa du (unitate astronomikoa = Eguzkitik Lurrerainoko distantzia edo 149.597.870 kilometro).

Hauts hori izarra sortu zuen hodeikoa balitz, dagoeneko ezkutatuta egongo zatekeen. Hiru astronomoen iritziz, hauts-disko hori kometak meteorito eta sortzeko bidean diren planeten arteko talkaz

sortu da. Fomalhauten diskoa baino lehen, Beta Pictoris izarrarena aurkitu zen. Bigarren planeta-sehaska da hau, beraz. Orain izarren inguruko planetak aurkitzea falta da.

## Izar jaio berriek diskoa dute

**E**statu Batuetan Robert O'Dell astronomoak ikusitakoaren arabera, izar jaio berrien erdiek inguruan gasezko diskoa

giratuz, astrofisikariek ondoko galdera honi erantzun nahi diote: Unibertsoan gure galaxiatik kanpo beste planetarik ba al da?

Erantzuna garrantzitsua da. Izan ere, Unibertsoan zenbat eta planeta gehiago izan, hainbat eta aukera handiagoak izango dira bateren batean gurean bezalako bizia egoteko. Espazio-ko *Hubble* teleskopioak 110 izar jaio berri hauek oso irudi aratzak bidali ditu. Horietako 56k multzo argitsu luzea osatuz daude, hau da, gas- eta hauts-hodei



Estatu Batuetan Robert O'Dell astronomoak ikusitakoaren arabera, izar jaio berrien erdiek inguruan gasezko diskoa dute. Orion nebulosa Eguzki-sistematik 1.500 argi-urtera dago eta hango nebulosa izar jaio berriz josita dagoela esan daiteke.

dute. Orion nebulosa Eguzki-sistematik 1.500 argi-urtera dago eta hango nebulosa izar jaio berriz josita dagoela esan daiteke. Milioi bat urteko adina besterik ez duten izar hauei be-

handi batean. Planetak sortzeko lehengai faltarik ez dute, beraz.

